



ONDARROAKO UDALAREN ADIERAZPENA:

Domekan Ondarroan be Aberri eguna Etxetik

88. Aberri Eguna izango da aurtengoa, eta ezin izango dugu kalean ospatu larrialdi egoera dela eta. Ezintasun horrek, ordea, Euskal Nazioaren eguna denok batera ospatzeko aukera ematen digu, eta aldi berean, larrialdi honetan bizitza galdu dutenak omentzeko. Baita ere, larrialdi egoera honetan lanean dabilzan profesional eta boluntarioei gure esker ona adierazteko.

Osasun itxialdia errazagoa izan dadin, batera irteten gara etxeetako leiho eta balkoietara, abesteko eta txalo jotzeko. Horrek indarra eta babesa ematen digu eta aldi berean nazio sentimendua sendotzen du.

Hori dela eta, Ondarroako Udaletik, dei egiten dizuegu 2020ko Aberri Egunean ondarrutar guztioi antolatutako ekimen ezberdinetan parte hartzera, eta batez ere Ikurrina leiho eta balkoietara ateratzea. Horrela aldarrikatuko baitugu elkarrekin eraikitako egitasmoei emango dietela gure herriari behar duen etorkizuna, eta askatasun nazionalak komunitate bat behar duela oinarritzko eskubideak bermatuko dituen eta baita ere berdintasuna eta elkarrenganako zaintza eta errespetua sustatuko dituen.

Krisialdi honetan, ondarrutarrok gure indarra erakutsi dugu, berriro ere. Hori oinarri izanik, eta etorkizuneko erronkei begiratu, lankidetzara aldarrikatu nahi dugu instituzio, eragile eta herritarron artean, bakoitzak bere ahotsari uko egin gabe gai izan gaitzen batera jarduteko, sentimendu eta nortasun ezberdinez osaturik, egoerak hala eskatzen duenean. Indar horrek eramango du gure herria erabakimena duten herri libreei dagozkien eskubide politikoen jabe izatera. Benetan sinisten dugulako mundua hobetuko dugula eskubide guztien jabe den nazio libre bat eraikitzean.

Ondarroako EH Bildu eta Ondarroako EAJ/PNV

Ondarroako Udala